


VITORIA-GASTEIZ HEZIKETARAKO ESPAZIO GISA



# ERDI AROKO Gasteiz

*DBH*



Vitoria-Gasteiz  
Ciudad Educadora  
Vitoria-Gasteiz  
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala

i b i l b i d e a

**2007ko uztaila**

Egilea:

**Udaleko Hezkuntza Saila**

Diseinua:

**Javi Roa eta Enklabe, K.S.T.**

Argazkiak:

**Luis María García Maestu (Udaleko Hezkuntza Saila)**

16. orrialdeko marrazkiak:

**José Javier Quintana García y Carlos Martín Merino** (*Erdi Aroko Gasteiz*. Vitoria-Gasteizko Udala, 1993)

**Adolfo Zalduendo Lavín** (*Biztanlegoa: Bilakaera eta migrazioen joan-etorriak*. Vitoria-Gasteizko Udala, 1994)

Berrikusita eta eguneratuta:

**Udaleko Hezkuntza Zerbitzua** (2018ko uztaila).

**Enklabe K.S.T.** (2016ko abendua).

Euskaratzea:

**AIXE, S.L.**

Argitaldaria:

**Vitoria-Gasteizko Udala – Udaleko Hezkuntza Saila**

# ERDI AROKO Gasteiz

1. AURKEZPENA.....	5
2. IBILBIDEA.....	6
3. FRAI ZACARIAS MARTINEZ KALEA.....	7
4. BAKARDADE KANTOIA.....	9
5. ERREMENTARI KALEA.....	10
6. BURUILERIA PLAZA.....	12
7. AIZTOGILE KALEA.....	14
8. JARDUERAK.....	18
9. GLOSARIOA.....	24
10. BIBLIOGRAFIA.....	25

*Historia eta Arte Ibilbideak programan parte hartzean, zeure hiria hobeto ezagutzeko aukera izango duzu: sorrera, bilakaera, eta gizartearen, ekonomiaren, hirigintzaren zein artearen aldetik garai bakoitzean izan dituen ezaugarriak, egungo ezaugarriekin alderatuta.*




*Hiria hobeto ezagututa, gehiago estimatuko duzu, zaintzen ahaleginduko zara, eta hiriak eskaintzen dizkizun zerbitzuak era egokian erabili ahal izango dituzu.*

## 1. AURKEZPENA

Gure hiriaren sorrera Erdi Aro osoan guztiz ohikoa zen gertaera bati lotuta etorri zen; izan ere, hiribildu gotortu bat sortzean jaio zen. Halaxe, Nafarroako errege Antso VI.ak lehenagotik harresituta zegoen Gasteiz izeneko herrixka zaharrearantz jarri zuen, bere erresuma Gaztelako konkista-asmoetatik babestu nahirik. Aurrerago, Alfontso VIII.ak eta Alfontso X.ak (Gaztelako bi erregek), Victoria izeneko hiribildu hura sendotzen lagundu zuten.

Hiribildu gotortu txikia haziz joan zen hedaduran eta biztanle kopuruan, eta, defentsako zereginen ordean, merkataritzakoak eta artisautzakoak hartu zituen. Antzinako etxeak eraitsi, eta jauregiak eta jauretxeak eraiki zituzten. Gaurko egunean, eraikin historiko haietako batzuk galdu dira, beste asko zaharberritu egin dituzte, eta beste batzuek lehenbailehen esku hartzea behar dute kontserbatu ahal izateko. Hala ere, ibilbide honetan ikusi ahal izango dugunez, Erdi Aroko gunearen hiri trazatuak bere hartan iraun du, ia aldaketarik gabe.

## 2. IBILBIDEA



### 3. FRAI ZACARIAS MARTINEZ KALEA

Gasteizko herrixkak kokaleku estrategikoa zuen, muinoaren gorenean. Hori aprobetxatuz, Nafarroako errege Antso VI.ak Victoria hiribildua sortu eta sendotu zuen. Luzetara ezarritako hiru kalek eratzen zuten antzinako Victoria hura. Kale haiek bat zetozen oraingo Santa Maria, Eskola eta Frai Zacarias Martinez kaleekin. Hiribilduaren iparraldean, Santa Maria eliza-gotorlekua altxatu zuten; eta, hegoaldean, San Bizente gaztelua.

Gune hori Landatxo, Goiuri edo nafar hiribildua izenekin da ezaguna; eta, Erdi Aroko hiriaren barruan, gune horixe da mendez mende aldaketa gehien izan duena. Antzinako etheen ordeztan, pixkanaka-pixkanaka han jarri zituzten Berpizkunde estiloko jauregiak (Montehermoso, Eskoriatza-Eskibel eta Goiuri) eta jauretxeak, XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan eraikiak (Gonzalez de Txabarritarren jauretxea, Etxanobetarren etxea...).



*Fray Zacarias Martinez kalea*



## MONTEHERMOSO JAUREGIA

Montehermoso jauregia XVI. mendean eraikiarazi zuen Ortuño Ibañez de Agirrek (Karlos V.a enperadorearen aholkularia) eta María Eskibel Arratia bere emazteak. Hasieran “Agirretarren jauregia” bezala ezaguna, moja domingotarren komentu izan zedin eraiki zuten, baina, azkenean, familiaren bizileku bihurtu zuen. Hantxe hartu dute ostatu hainbat pertsonaia historikok, hala nola María Antonia de Saldedo Txabarrik (Montehermosoko markesa eta eragin handiko emakumea Felipe V.aren gortean). Felipe V.a ere bertan egon zen; baita María Luisa de Saboya erregina ere. Halaber, jauregian ostatu hartu zuen Jose Bonapartek (Napoleonen anaia, eta Espainiako errege 1808tik harik eta frantziar armada Gasteizko guduan menperatu zuten arte, 1813ko ekainaren 13an).

Montehermoso jauregia Berpizkunde estilokoa da, eta patio arkupeduna du barnealdean. XIX. mendean, apezpikuaren egoitza bihurtu zen, eta fatxada nagusia elementu neogotikoekin birmoldatu zioten. 1994an, Udalak erosi zuen, eta, berritu ondoren, Montehermoso kulturunea jarri zuen. 2014az geroztik, halaber, Oihaneder Euskararen Etxea dago bertan.




Montehermoso jauregia

## 4. BAKARDADE KANTOIA

Nafarroako errege Antso VI.ak Gasteizi jarri zion arreta bereziaren ondorioz, gero eta arabar gehiagok etorri nahi izan zuten bertan bizitzera. Hainbeste jende etorri zenez, —Nafarroako erregea bera— hirigunea handitu behar izan zuen mendebaldetik, beste hiru kale eginez (Hedegile, Zapatarari eta Errementari kaleak). Kale horiek zeharkatzen zituzten kantoiak ziren hiribilduaren gorenera joateko bidea.

Hiria zabaltzean, beharrezkoa izan zen beste harresi-lerro bat egitea mendebaldean, Zapardiel ibaiaren ondoan. Ibai horrek egiten zuen babes-erreten naturalaren eginkizuna.

Gerora, harresi horri atxikita eraiki zituzten San Pedro eliza eta hiria babesten zuten beste dorre batzuk.



*Bakardade kantoia*

Kantoiak kale estuak ziren, kale nagusiak zeharka komunikatzen zituztenak. XIX. mendean, higieena eta hirigintza hobetzeko, estolderia eta zoladura jartzeko obrak egin zituzten, eta etxe bat eraitsi zuten kantoiko alde banatan, eguzkiaren argia sar zedin. Hartara, kaleak berak baino zabalago bihurtu ziren kantoiak. San Roke kantoia baino ez da geratu antzina zen bezalaxe.


2007an, aldapa mekanikoak jarri zituzten Bakardade kantoian, Errementari kaletik Frai Zacarias Martinez kalera igotzeko.

## 5. ERREMENTARI KALEA

Victoria hiribilduaren lehendabiziko zabalkunde hartako kaleen izenetan agerienez, artisauek eta salerosleak iritsi ziren hirira, eta lanbidearen arabera taldekatu ziren kale eta eremu jakin batzuetan. Langile horiek gremioetan antolatzen ziren. Artisauen interes profesionalak zaintzen zituzten elkarteak ziren gremioak.

Gremioen eragina zenbaterainokoa zen ikusteko, nahikoa dugu hiribildura bizitzera etorritako landatar nobleekin izan zituzten ikamika handiei begiratzea. Noble haiek pribilegioak izan nahi zituzten gainerako herritaren gainetik. Gremioak Aialatarren bandoan elkartu ziren, eta San Miguel elizan egiten zituzten bilerak. Nobleek, Callejatarren bandoan bilduta, San Pedro eliza zuten egoitza. Bi talde horien arteko borrokek (“bando-borrokak”) ia mende bete iraun zuten. 1476an bukatu ziren, Errege-erregina Katolikoekin Kapitulazioarekin. Urte batzuk geroago, hiria gobernatzeko ordenantza berriak idatzi ziren, eta indarrean izan ziren hirurehun urtez.

Errementari kalea izan zen mugimendu eta jarduera handieneko kaleetako bat hiribilduan; besteak beste, kale hartan zegoen Aduana etxea. Errementari kalean bizi ziren nobleetako eta maila goreneko merkatarietako asko.



*Errementari kalea*

## ADUANA ETXEA


Victoria hiribilduak, bere kokaleku geografiko eta estrategikoari esker, garrantzi handia izan zuen Gaztelaren eta Bizkaiko itsasoko portuen arteko merkataritza-bideetan. Merkatarik gasteiztarrek artekari gisa parte hartu zuten Gaztelako artilea esportatzeko eta Flandesko nahiz Ingalaterrako oihalak inportatzeko salerosketetan. Orobat, hirian salerosten ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako burdinoletako burdina, Gesaltza Añanako gatza, Alcarriako ezti eta argizaria, eta Andaluziako olio.

Aro Modernotik 1841era arte, Gasteiz lehen mailako “lehorreko portua” edo aduana izan zen. Horregatik, Aduana etxea behar izan zuen. Historialari gehienek ustez, Juan Bautista Ortiz de Landazuri eta Maria Gonzalez de Junguitu senar-emazteek 1665 inguruan eraikiarazitako etxe horretan izan zen Gasteizko aduana. Hala ere, beste ikerketa batzuek diote, Errementari kaleko eraikin horrek inoiz ez zuela halako eginkizunik izan.

Estilo barrokoko etxea da, eta hantxe bizi izan dira hainbat pertsona ospetsu, hala nola Joaquin Jose Landazuri historialaria eta Juan Jose Herran ingeniari eta politikaria.



*Landazuriren etxea*



*Burulleria plaza*

### ANDATARREN DORRETXEA

Dorre hori XV. mendearen bukaeran eraiki zuten, hiria iparraldetik babesteko estrategikoa zen toki batean.

Dorretxeek babes-eginkizuna eta bizileku-eginkizuna bateratzen zituzten. Gainera, nobleek hiriko sarbideetan eraikitzen zituzten, salgaiak igarotzeagatik kobratu ahal izateko.

## 6. BURULLERIA PLAZA

Plaza horri *Erdi Aroko Txokoa* esaten diote, bertan ugari baitira Erdi Aroko eraikinak:

### SANTA MARIA KATEDRALA

Hasieran, jatorrizko Gasteiz herrixkaren babesak indartzeko eginkizuna zuen eliza-gotorleku txikia izan zen. XIII. eta XIV. mendeetatik aurrera, oraingo eliza eraiki zuten, estilo gotikoko joerei jarraituz. Geroztiko mendeetan, beste estilo batzuetako elementuak gehitu dizkiote, hala barruan nola kanpoan (portada, dorrea...). Eliza horrek, arian-arian, garrantzi handia hartu zuen; eta, 1862an, azkenik, katedral egin zuten.




*Andatarren dorretxea*

## PORTALOIA

XV. mendearen bukaeran edo XVI.aren hasieran eraiki zuten, ostatu gisa.

Eraikuntzako materialak Erdi Aroko etxe herrikoietakoak dira: harrizko oinaldea, eta zurezko eta adreiluzko bilbaduraz eginiko fatxada. Nabarmena da ate handia, bidaiariei gurdiekin eta zamariekin sartzeko aukera ematen ziena.

XX. mendearen erdialdean, etxea egoera txarrean zegoenez, zaharberritu egin zuten. Egun, izen handiko jatetxea da.



*Portalea*



*Gobeo-Landazuritarren etxea*


## GOBEO-LANAZURITARREN ARMARRI ETXEA

Gobeo-Landazuritar familiaren bizileku gisa eraiki zuten, XVI. Mendearen bukaeran. Hirurogeigarren hamarkadan eraikina birgaitu zuten eta Arkeologia Museoa jarri zuten bertan, 2009an Bibat museora eraman zuten arte.

## 7. AIZTOGILE KALEA

Gaztelako errege Alfontso X.a Jakitunak Erdi Aroko hiribilduaren bigarren zabalkundea eginarazi zuen 1256. urtean. Horretarako, muinoaren ekialdea hiritartu zuten. Hiru kale sortu zituzten (Aiztogile, Pintore eta Judutegi kaleak), eta beste horrenbeste kantoi.

Emaitza gisa XIII. mendearen erdialdean eratutako hiri eremua ez zen berriz handitu XVIII. mendearen bukaera arte.



*Bendaña jauregia*

### BENDAÑA JAUREGIA

XVI. mendean eraiki zuten, Juan Lopez de Arrieta eta Maria de Eskoriatza senar-emazteek aginduta, familiarentzako bizileku gisa. Aurretik egindako dorretxea erabili zuten eraikin berri hori egiteko. **Bukaerako gotikoaren eta Berpizkundeko joera berrien arteko trantsizioko eraikina da.**

Arrieta-Maeztutarren jauregia izenarekin ere bada ezaguna. Izan ere, bi familia horiena izan zen. Hala ere, XIX. mendean jabea Bendañako markesa zen, eta hortik datorkio izenik zabalduena.

Zaharberritu zutenez geroztik, Bibat Museoren egoitza da, Karta eta Arkeologia Museoak batean biltzen dituen.


## SOKAREN ETXEA

XV. mendearen bukaeran edo eraiki zuten, Santxez de Bilbao jatorri judutarreko familiaren bizileku gisa. Garrantzi handiko salerosleak ziren Santxez de Bilbaotarrak.

Aro Modernoaren hasieran, judutarrak kanporatu zituzten. Zenbait judu geratu ahal izan ziren, kristautasunera bihurtuta. Edonola ere, etengabeko jazarpena jasan zuten, haien erlijio- eta gizarte- jokabideei gertutik begiratzen baitzieten.

Santxez de Bilbao familiak, bere kristautasunaren eta Koroari zion leialtasunaren erakusgarri, erlijio- eta erakunde-sinboloak jarri zituen bere bizilekuaren fatxadan: atearen gainean, frantziskotarrek gerrian eraman ohi zuten soka, etxeari izena eman diona; eta Errege-erregina Katolikoen ezkutua.

Eraikinaren barrualdean, XIII. Mendeko babes-dorrea dago. Haren inguruan eraiki zuen etxea Santxez de Bilbao familiak. Dorreko gela noblea, izar erako ganga polikromatu eder batek estaltzen du.



*Sokaren etxea*

Hirian Erdi Aroan bizi ziren gizarte taldeen eta talde etnikoen artean, aipagarriak ditugu hauek:



a) **Herri xehea:** artisauak, salerosle txikiak, eta —kopuru txikiagoan— nekazariak ziren. Artisauak ziren ugariena.

b) **Nobleak:** landa ingurunetik zetozen, eta XIV. mendetik aurrera pixkanaka kokatu ziren hirian. Berehala bihurtu zen gizarte-klase gorena, nobleen eskuetan baitzen botere ekonomiko eta politikoa.

c) **Juduak:** juduen komunitatea, Judutegi kalean kokatuta —gaur Barnekale Berria den horretan, alegia—, gizartetik bereizita bizi zen, bere antolamenduagatik eta kristau komunitateak inposatzen zizkion arauengatik. Juduak, batik bat, artisau- eta merkatari-jardueretan aritzen ziren. Gure hirian, garrantzi handia izan zuten medikuntzan ere.

d) **Kleroa:** oso gizarte-talde ugaria zen, eta eragin handia zuen hiriko bizitzan, erlijioaren eremuan ez ezik, baita kulturaren, gizartean eta politikan ere.

Erdi Aroko gizartea nahiko pobrea zen. Goi mailetako biztanle gutxi batzuk izan ezik (nobleak, merkatarik aberatsak eta goi mailako kleroa), gehien-gehienak ozta-ozta egiten zuten bizitzeko modua, egunero gogor lan eginda.

“Gizarte-maila apaletan, familiako ekonomia oso kaltebera zen [...]. Nahikoa izaten zen uzta txar bat [...], edo familia-burua lanik gabe izatea, hiltzea edo gaixotzea, familia osoa miseria gorrian izateko [...]. Pobreen ehunekorik handiena emakume alargunak ziren, bakarrik edo adingabeko seme-alabekin” (Jose Mari Imizcoz eta Paloma Manzanos. *Historia de Vitoria*).

Historian zehar, Erdi Aroko hiriguneak aldaketa handiak izan ditu, biztanleen gizarte-egituran. Aldaketarik nabarmenenak 1950etik aurrera gertatu ziren, hirian industria garatu zenean eta auzo berriak sortu zirenean. Alde Zaharreko biztanleek auzo berrietara alde egin zuten, eta, horrek eraginda, Alde Zaharra utzita geratu zen; horrenbestez, bertako ingurune fisiko eta soziala hondatu ziren.

Hiri askotan, alde zaharra ingurune andeatua izan da, edo oraindik ere bada: etxebizitza asko daude hutsik eta hondatuta, eta barne-ekipamendu gutxi dago. Gainera, komunitate-zerbitzu gutxiko auzoak izan dira, eta biztanleria zaharkitua eta tirotua izan dute.


Hala ere, gure hirian, XX. mendeko azken hamarkadan, Udalak hirigune historikoa biziberritu eta hobetzeko proiektuari ekin zion. Horrenbestez, Alde Zaharrean hainbat ekintza egin dituzte (ekintza fisikoak, gizarteak, ekonomiakoak, kulturakoak...), bizigarritasun-baldintzak hobetzeko asmoz.



*Hedegile kalea*

## 8. JARDUERAK

8.1. BEGIRA IEZAIOSU hirigune zaharren plano honi, eta **EGIN ITZAZU** ondorengo ariketa hauek:



- ✓ Kolore bana erabiliz, margo itzazu planoan Alde Zaharreko hiru eremuak: Gasteizko jatorrizko erdigunea, hiriaren gainaldean; lehenengo zabalkundea, 1181. urtean mendebalderantz egina; eta bigarren zabalkundea, 1256. urtean ekialderantz egina.
- ✓ Idatz itzazu kaleen izenak, eta osatu kantoien izenak.
- ✓ Adieraz itzazu planoan ondorengo eraikin hauek: Ramon Bajo ikastetxea, Goiuri jauregia, San Bizente eliza, osasun-etxea, Montehermoso jauregia (izen bereko kulturunea eta Oihaneder Euskararen Etxea hartzen dituen), Landatxo gizarte etxea eta Udalaren Musika Eskola.

**8.2. LOTU ITZAZU** Erdi Aroko kaleak haietako bakoitzean salgai izaten ziren produktuekin.

KALEA	PRODUKTUA

**8.3. IDATZ ITZAZU** etxebizitza-mota bakoitzaren ezaugarriak, eta mota bakoitzean bizi zen gizarte-taldea. Jar ezazu etxebizitza -mota bakoitzaren adibide bat (izena eta kokalekua).

- ✓ Alportxa-etxeak:
- ✓ Dorretxeak:
- ✓ Jauregiak:
- ✓ Jauretxeak

8.4. IDATZ EZAZU ondorengo eraikin hauek historian izan dituzten eginkizunetakoren bat:

ERAIKINA	EGINKIZUNAK
Gonzalez de Txabarritarren etxea	
Eskoriatza-Eskibel jauregia	
San Miguel eliza	
Doña Otxandaren dorretxea	

8.5. AZTER ITZAZU ondorengo taula hauetako datuak, eta ADIERAZ ITZAZU Alde Zaharreko biztanleen ezaugarri batzuk.

Alde Zaharreko biztanleak, sexuaren arabera (1)		
SEXUA	BIZTANLEAK	EHUNEKOA
GIZONEZKOA	4226	49,26
EMAKUMEZKOA	4.352	50,73
<b>GUZTIRA:</b>	<b>8.578</b>	<b>100,0</b>

Alde Zaharreko biztanleak, adinaren arabera (1)		
ADINA	BIZTANLEAK	EHUNEKOA
0 - 4	351	4,09
5 - 9	389	4,5
10 - 14	333	3,8
15 - 19	306	3,5
20 - 24	378	4,4
25 - 29	532	6,2
30 - 34	650	7,5
35 - 39	719	8,3
40 - 44	780	9,1
45 - 49	770	8,9
50 - 54	753	8,7
55 - 59	625	7,2
60 - 64	439	5,1
65 - 69	348	4,08
70 - 74	326	3,8
75 - 79	234	2,7
80 - 84	280	3,2
85 - 89	202	2,3
90 edo gehiago	163	1,9
<b>GUZTIRA:</b>	<b>8.578</b>	<b>100,0</b>

(1) Iturria: Biztanleen Udal Errolda, 2018-01-01.

Alde Zaharreko biztanleak, jatorriko herrialdearen arabera (1)		
JATORRIZKO HERRIALDEA	BIZTANLEAK	EHUNEKOAK
ESPAINIA	6.974	81
MAROKO	403	4,7
ALJERIA	167	1,9
NIGERIA	134	1,6
PAKISTAN	101	1,2
KOLONBIA	79	0,9
PARAGUAY	68	0,8
ERRUMANIA	46	0,5
TXINA	40	0,5
SENEGAL	39	0,5
DOMINIKAR ERREPUBLIKA	31	0,4
PORTUGAL	29	0,3
BRASIL	28	0,3
VENEZUELA	27	0,3
ITALIA	25	0,3
EKUADOR	24	0,3
BOLIVIA	23	0,3
MAURITANIA	21	0,2
UKRAINA	17	0,2
PERU	16	0,2
GEORGIA	16	0,2
BESTE BATZUK	255	3,1
<b>GUZTIRA:</b>	<b>8.578</b>	<b>100,0</b>

(1) Iturria: Biztanleen Udal Errolda, 2018-01-01.

Alde Zaharreko biztanleak, jarduera motaren arabera (2)	
JARDUERA ADARRA	BIZTANLEAK
Nekazaritza eta arrantza	-
Industria eta energia	29
Eraikuntza	79
Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	401
Banka, aseguruak eta enpresetarako zerbitzuak	251
Bestelako zerbitzu jarduerak	148
<b>GUZTIRA:</b>	<b>887</b>

(2) Iturria: *Ekonomia Jardueren gaineko Zerga.*

2017-12-31

**8.6. KONPARA ITZAZU** Erdi Aroan Gasteizen ziren kulturak eta erlijioak gaur egun ditugunekin. Zure ustez, zer-nolakoak ziren kultura horien arteko harremanak, Erdi Aroan? Eta gaur egun? Eztabaidatu zure lagunekin, hainbat eratako iritziak ikusteko.

### 8.7. IKASGELAKO EZTABAIDA

Kontuan hartuta Udalak Alde Zaharra biziberritzeko egindako ekintzak, eta bertako biztanleek egiten dituzten eskakizunak, azter ezazu zenbatetaraino datozen bat. Egin itzazu gure hiriko auzo hori hobetzen lagunduko duten proposamenak. Eztabaida itzazu zure lagunekin.

## 9. GLOSARIOA

**ALPORTXA-ETXEA:** Gasteizko zein beste hiri batzuetako Erdi Aroko kaleetan tipikoa den etxe mota. Etxe mota horrek ezaugarri bereziak ditu: oso estua eta oso sakona da; horregatik, leiho bat edo bi jartzeko lekua baino ez du izaten.

**APEZPIKUA:** Kristau erlijioan, elizbarruti bateko buru den gizona.

**ARO MODERNOA:** Aro Modernoa da historia zatitzean erabili ohi den aldietako bat. Aldi hori 1453an hasi zen, turkiarrek Konstantinopla konkistatu zutenean; eta 1789ra arte iraun zuen, Frantziako Iraultzaren hasiera arte.

**BERPIZKUNDE ESTILOA:** XIV. mendean Italian sortutako arte-estiloa, XV. eta XVI. mendeetan Europako gainerako lurretan zabaldu zena. Mugimendu horrek funtsezko bi ezaugarri ditu: antzinaroko Grezian eta Erroman garatutako forma klasikoak imitatzea, eta bizitza profanoari buruzko ardura bizia, humanismoaren gaineko gero eta interes handiagoan ageri dena.

**ESTILO BARROKOA:** Gutxi gorabehera 1600. urtetik 1750eraino Mendebaldeko artean eta arkitekturan nagusi izan zen estiloa. Arte barrokoaren ezaugarri nagusiak, besteak beste, honako hauek dira: mugimenduaren zentzua; espiritualtasuna; espazioa eta perspektiba zehazki irudikatzea; eta argi-itzalen kontraste indartsuak.

**ESTILO GOTIKOA:** Europan Erdi Aroko azken hiru mendeetan egin zen arte-estiloa. Estilo erromanikoaren bilakaera gisa abiatu zen. Arkitekturan, *ojiba arku* edo *arku zorrotza* deritzon elementua erabiltzea du ezaugarri nagusi.

**ESTILO NEOGOTIKOA:** XIX. mendean, gogo-berotasun handia piztu zen Erdi Aroaren eta historizismoaren alde. Horrek eraginda, Erdi Aroko eraikinak zaharberitzeko lan handiak egin zituzten, eta estilo neogotikoa ezarri egin zen, arkitekturan Erdi Aroko gotikoa imitatuz.

**GANGA:** Obra makotua, bi hormaren edo lerrokatutako hainbat pilareren arteko eremua estaltzen duena.

**GREMIOA:** Lanbide edo ogibide bereko maisu, ofizial eta ikastunek osatutako elkarte. Ordenantza edo estatutu berezi batzuek arautzen dute elkarte hori.

**HEGALKINA:** Eraikin baten fatxadatik irten eta kanpoalderantz luzatzen den zatia.

**JUDU KRISTATUTUA:** Jatorriz judua izanik, ondoren kristautu egin den pertsona.

**KAPITULATUA:** Eskuarki larria den gairen bati buruz, pertsona biren edo gehiagoren artean eginiko hitzarmena edo ituna.

**LEHORREKO PORTUA:** Mugako tokia, itsasorik gabea, aduana duena.

**OINALDEA:** Eraikin edo obra baten beheko zatia.

**ORDENANTZAK:** Legea baino maila apalagoa duten arauak. Udal batek, udalbatzak edo haren agintari nagusiak (alkatea edo udal presidentea) ematen ditu udal ordenantzak, udalerrira kudeatzeko.

## 10. BIBLIOGRAFIA

ARECHAGA, SUSANA; VIVES, FRANCISCA. *Patrimonio histórico artístico en el término municipal de Vitoria-Gasteiz*. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 2005.

IMÍZCOZ, JOSEMARI; MANZANOS, PALOMA. *Historia de Vitoria*. Donostia: Txertoa argitaletxea, 1997.

MANZANOS, PALOMA; VIVES, FRANCISCA. *Las mujeres en Vitoria-Gasteiz a lo largo de los siglos*. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 2001.

MOZAS, JAVIER; FERNÁNDEZ, AURORA. *Vitoria-Gasteiz Guía de Arquitectura*. Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala, 1995.

*Erdi Aroko Gasteiz*. Gasteizko Udaleko Hezkuntza Saila. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1993. “Gasteiz heziketarako espazio gisa” bilduma.



Vitoria-Gasteiz  
Ciudad Educadora  
Vitoria-Gasteiz  
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala